



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALA

2019 OTS. 25

SARRERA - ERREGISTROA
ZKA. 2007

BIZITZAK ERDIGUNERA 2019ko martxoaren 8ko Greba Feministaren aldeko mozioa

LAS VIDAS AL CENTRO Moción en apoyo a la huelga feminista del 8 de marzo de 2019

laz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. *Emakumeok planto – Nosotras Paramos* lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatzen.

El año pasado, por primera vez, el Movimiento Feminista de Euskal Herria convocó un paro parcial de la mujeres para el 8 marzo, con el objetivo de hacer frente a los desequilibrios derivados de la violencia machista y de la multitud de formas de desigualdad. Bajo el lema *Emakumeok planto – Nosotras Paramos* se denunció el sistema capitalista, patriarcal y racista que oprime a las mujeres.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarrizatu zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Muchas mujeres de Euskal Herria se sumaron a aquella convocatoria de huelga, que se consideró un hito en la lucha y reivindicaciones feministas, una vez que se logró una mayor visibilización.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba-deia egin du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo ereduaren, sexualitatearen, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardurak kolektibotik abiatuta bizitzaren sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politikak publikoak burutuz. laz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala publikoaren zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Este año, el Movimiento Feminista de Euskal Herria junto con agentes sindicales, políticos y sociales ha convocado una huelga de 24 horas. Esta huelga se articula en torno a cinco ejes: cuidados, empleo, pensionistas, sector estudiantil y consumo. Se sitúa en los ámbitos que afectan a la vida de todos y todas, en los trabajos remunerados y gratuitos, en los modelos de consumo, en la sexualidad, el racismo... Por ello, por medio de la huelga, partiendo de la responsabilidad colectiva, se reclama un nuevo pacto social y que se lleven a cabo políticas públicas que garanticen una igualdad real y efectiva. Al igual que el año pasado, los cuidados pasan a ser el centro, y se reivindica la reorganización social de los cuidados como eje transversal de las políticas públicas.

Aurrekari horiek aintzat hartuta, Tolosako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

Teniendo en cuenta todos estos antecedentes, el Ayuntamiento de Tolosa



adopta los siguientes acuerdos:

- Udala Mugimendu Feministak deitutako grebara atxikitzea eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.
- Baliabide material eta instituzional guztiak jartzea, Tolosan antolatzen diren elkarretaratze eta jardueren berri emateko.
- Udaletxeko balkoian bandera feminista jartzea, emakumeen grebaren aldeko ikur gisa.
- Bere eskumenen alorrean laguntzea baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezten eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
- Jarraitzea sentibilizazio eta trebakuntza-programak garatzen, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeo guneak emakumeekin partekatzeo.
- Jarraitzea udal politikan, programa eta proiektuetan genero-ikuspegia zeharkakotasunez txertatzeko estrategia garatzen.
- Tolosako Jabetze Eskolaren bitartez balioen transmisioa azpimarratzea, kultura-aldaketak sustatzeko berdintasunezko gizartea lortzeko eta emakumeen banakako eta taldeko jabetzea.
- Apoyar la huelga general de mujeres convocada por el Movimiento Feminista, y facilitar su desarrollo a las electas y trabajadoras de este Ayuntamiento.
- Facilitar con todos los medios materiales e institucionales la difusión de las concentraciones y actividades que se organicen en Tolosa.
- Colgar del balcón del Ayuntamiento la bandera feminista como símbolo de apoyo a la huelga de las mujeres.
- Contribuir en el ámbito de su competencia al desarrollo y consolidación de recursos y servicios públicos para apoyar el cuidado y promover la articulación de estrategias comunitarias para la coresponsabilidad social en los cuidados.
- Continuar, con el desarrollo de programas de sensibilización y formación dirigidos a fomentar la coresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado y mantenimiento del hogar, así como a compartir los espacios de decisión con las mujeres.
- Continuar con el desarrollo de la estrategia transversal de la incorporación de la perspectiva de género en la política, programas y proyectos del Ayuntamiento de Tolosa.
- Incidir a través de la Escuela de Empoderamiento en la trasmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria y el empoderamiento individual y colectivo de las mujeres.



TOLOSAKO
UDALA

- Zeharkakotasunez sartzea sorburu, ● Incluir transversalmente en todas kultura eta erlijio desberdinetako emakume sus políticas de igualdad de género y migratzaileen multzoak duen programas de sensibilización y formación kalteberatasunaren irizpidea eta begirada, el criterio y mirada de la vulnerabilidad del non eta Udalaren genero-berdintasunaren colectivo de mujeres inmigrantes de politika eta sentsibilizazio- eta formazio- diversos orígenes, culturas y religiones. programa guztietan.

Azkenik, herritarrei dei egiten die egiten die modu Finalmente, llama a la ciudadanía a aktiboan parte har dezaten, martxoaren participar de manera activa en los 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna diferentes actos y acciones que se dela-eta, antolatu eta deituko diren organicen y convoquen con motivo del 8 ekitaldi eta ekintzetan. de marzo, Día Internacional de las Mujeres.

Tolosan, 2019ko otsailaren 26an

JOKIN AZKUE ARRASTOA
EAJ-PNV

CRISTIAN FERNANDEZ SUSIN
PSE-EE

KRISTINA PELAEZ ERRAZKIN
EH BILDU



TOLOSAKO UDALA

2019 OTS. 25

SARRERA - ERREGISTROA

ZKA.2005.....

Honi erantsita EAJ-PNV, EHBildu, PSE-PSOE taldeak politikoei Udal Plenoan eztabaidatzeko aurkezten dute Tolosaldea Sahararekin elkarrekin proposatutako mozioa: *Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 43, urteurrena.*

Tolosa, 2019ko otsailaren 25a

EAJ-PNV

Jokin Azkue

EHBildu

Kristina Pelaez

PSE-PSOE

Cristian Fernandez



Tolosako Udala

GIPUZKOA

OROKORRA / GENERAL

Dokumentuen aurkezpen agiria

Erregistroaren datuak

Erregistro Zkia:	2019-00000001701	TOLOSAKO UDALA
Erregistro mota:	Sarrera	2019 OTS. 14
Aurkezpen data:	2019/02/14 11:57	SARRERA - ERREGISTROA
Sarrera data		ZKA. 14/02/2019
Gaia:	Internet bidezko erregistroa: TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAK TOLOSAKO UDALARI ESKAERA HAU EGITEN DIOGU	
Igorlea:	15901250Q EIZAGIRRE GREGORIO	ODRIOZOLA
Ordezkarria:		
Jasotzailea:	ERREGISTRO TELEMATIKOA	

Erantsitako dokumentuak

Izena	Egiaztapen kode segurua (EKS)	Aurkeztuta
MOZIOA	SIEFca9ec46b-eb80-442c-b05f-3374e299610a	Bai

Azalpenak edota eskaera

Idazki honekin batera Tolosaldea Sahararekin elkarteak mozio bat eranstean dugu eta zuen udallexean onartzea eskatzen dizuegu, horrela badagokio,
Udal batzarra ez bada ospatzen aldarrikapen instituziolarik eskatzen dizudu egitea Saharar herriaren alde eta aldi berean mozioan eskatzen dugun bezala otsailaren 27an saharar bandera zinzilikatzea zure udallexeko balkoian.
Eskertu genuke egun horretan argazki pare bat ateratzea eta gure helbide elektronikora bidaltzea.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, agirien aurkezpena egiaztatzeari dagokionean lutzatzen da jasotze-agiri hau.



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **SIEF11e52cd9-1e2f-4a5c-af41-82662f8527c7**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko koplaron osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:

<https://ust.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=07110>



Tolosako Udala

OROKORRA / GENERAL

Solicitud

Erregistroaren datuak

TOLOSAKO UDALA

Erregistro mota:	Sarrera	2019 OTS. 14
Aurkezpen data:	2019/02/14 11:57	SARRERA - ERREGISTROA ZKA. 1201
Gaia:	Internet bidezko erregistroa: TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAK TOLOSAKO UDALARI ESKAERA HAU EGITEN DIOGU	
Igorlea:	15901250Q EIZAGIRRE GREGORIO	ODRIOZOLA
Ordezkarria:		
Jasotzailea:	ERREGISTRO TELEMATIKOA	

Erantsitako dokumentuak

MOZIOA

Azalpenak edota eskaera

Idazki honekin batera Tolosaldea Sahararekin elkarteak mozio bat eranstean dugu eta zuen udaletxean onartzea eskatzen dizuegu, horrela badagokio,
Udal batzarra ez bada ospatzen aldarrikapen instituziolar eskatzen dizudu egitea Saharrar herriaren alde eta aldi berean mozioan eskatzen dugun bezala otsailaren 27an saharar bandera zinzilikatzea zure udaletxeko balkolan. Eskertu genuke egun horretan argazki pare bat ateratzea eta gure helbide elektronikora bidaltzea.

AITORTZEN DUT, nire ardurapean, adierazi ditudan datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.

DECLARO bajo mi responsabilidad que todos y cada uno de los datos aportados son veraces, exactos, completos y actualizados.

Nork Sinatua / Firmado por: GREGORIO EIZAGIRRE ODRIOSOLA
2019/02/14 11:57:16

Tolosako Udalak zuk emandako datuak fitxategi informatikoan gehitu direla, beharrezkoak diren administrazio lanak egin ahal izateko, jakinarazten dizu hala jasotzen baitu Datu Pertsonalen Babesari dagokion 2016/679 Erregelamentuak (EB). Nahi izanez gero zure datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dituzu idatzi bat eginez Tolosako Udalari.

Ayuntamiento de Tolosa en cumplimiento de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 relativo a la Protección de Datos de Carácter Personal informa de que los datos que nos facilita se incorporarán al fichero informático con el fin de ejercer las tareas administrativas correspondientes. Si lo desea puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito a Ayuntamiento de Tolosa.



TOLOSAKO UDALA

2019 OTS. 14

SARRERA - ERREGISTROA
ZKA.) 201.....

2019ko Otsailaren 13n

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarteak Tolosaldeako udalbatzei ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zampaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki,saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenarekin bat etorriz, 2019ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera zuen udaletxean zintzilikatzea adostea.

Adeitasunez.

TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEA.

TOLOSAKO UDALA

2019 OTS. 25

SARRERA - ERREGISTROA

ZKA.2005.....

Honi erantsita EAJ-PNV, EHBildu eta PSE-PSOE talde politikoei, Udal Plenoan eztabaidatzeko aurkezten dute Tolosaldeko Euskara Mahaiak proposatutako mozioa:
Tolosaldeko euskalgintzaren gobernantza eredu berria.

Tolosa, 2019ko otsailaren 25a

EAJ-PNV



Jokin Azkue

EHBildu



Kristina Pelaez

PSE-PSOE



Cristian Fernandez

TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA

TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA

Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen %75 euskal hiztuna da, beste %10ak ulertu behintzat egiten du, eta belaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren mugan daude. Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gure ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da. Globalizazio garaiotan, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude eutsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko. Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako, gozamenerako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberitze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnasmunea euskararentzat. Baina ausardiaz, koherentziaz eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetako lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatua eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna.

Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordaten diren, heldu dio 2018an zehar gai horretan sakontzen aritu den Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko Lan Mahaiak¹. Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta berau eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berritzaile eta erreferentziazkoa eraikitzeko urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia. Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen zerbitzura: TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA.

Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baitan hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta abenduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaiak eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkariak zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

Horregatik guztiatik, ordezkatzeko dudak erakundearen izenean, ADIERAZTEN DUT:

1. Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan -horietako batean, batzuetan edo guztietan- euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, lege ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua.

¹ Olatz Peon, Jon Zubizarreta, Haritz Mujika, Mikel Artola eta Aritz Mujika (Tolosa, Abaltzisketa, Asteasu, Alegia eta Berastegiko udal ordezkariak), Garbiñe Mendizabal eta Joxean Amundarain (GFako Hizkuntza Berdintasun zuzendaritza), Estibalitz Alkorta eta Josune Zabala (EJ-HPSko Sustapen eta Ikerketa zuzendaritzak), Imanol Haro (UEMA). Idoia Olano (eskualdeko Euskara Teknikarien ordezkaria), Joxin Azkue (Larramendi Bazkuna), Xabier Bengoetxea (Galtzaundi Euskara Elkarte), Garbiñe Mendizabal (Tolosaldea Garatzeneko Udal arduraduna), Mikel Ozaita (Soziolinguistika Klusterra), Kike Amonarriz (Bizkidetza eta hizkuntza), Lorea Agirre (Generoa, aniztasuna eta hizkuntza) eta Jexux Murua (koordinatzailea).

2. Bat egiten dugula eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmoarekin.
3. Bat egiten dugula Tolosaldeko Euskararen Mahaiak izango dituen Misio eta Helburuekin:
 - a. Misioa: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan.
 - b. Helburu estrategikoak:
 - i. Gobernantza eredu berri bat oinarri eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.
 - ii. Eskualde mailako hizkuntza politika definitzea.
 - iii. Normalizazio erreala lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.
 - iv. Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.
 - c. Helburu estrategikoak:
 - i. Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa ...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.
 - ii. Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.
 - iii. Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.
4. Ordezkatzen dudana erakundea gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan parte hartzeko eta lankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarritz, edota, hala badagokigu (Udalak, Gipuzkako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki sustengatuz.
5. Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutela murrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzen dudana erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzen diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jarduera eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean.

Eta hau egiteko legezko gaitasun nahikoa dutelarik, zera egiaztatzeko sinatzen dut agiri hau: ordezkatzen dudana erakunde edo saileko erabaki organo nagusiak Tolosaldeko Euskararen Mahaia eratzeko egitasmoa babestea eta agiri honetan zehaztutako konpromisoak hartzea onartu zuela,an, 2019korenan.

Erakundea:.....

Kargua:

Izen-abizenak:

Izenpea eta zigilua